

BALEIKE



211. ZENBAKIA. EURO BAT
2012ko EKAINA

www.baleike.com

**21 urte eta gero
bueltan da Bi eta bat.
Elena Iruretarekin
hizketan aritu gara
honi eta beste
hainbat gaiei buruz.**


**“ILUSIOA EGITEN
DIT JENDEAREN
BARREA ERAGITEAK”**



Kalitatezko
produktuak

Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA

Juanjo Larrañaga harategia



1 Kg HARAGI
ERDSIZ GERO
(ELITZEKOA EGITEKOA,
GISATZEKOA EDO
PIKADILLOA)
**1 L BASERRIKO ESNEA
OPARI**

DILASKO BULARRA
5.90 €/Kg.

ZUMAIA

Basadi auzategia, 4. Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ

Salegi kalea, 14. Tel./Faxa: 943 890 215

BALEIKE 211

AZALA A. Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi eta

Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

agustinzubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legia gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

6

elkarriketa

“AKTORE LANETIK EZIN DA
BIZI EZ HEMEN,
EZTA MADRILEN ERE”

4

hitz-tantak

JOXE MARI ZUBIMENDI

14

baleike +

SALTAKA EGITEN ZUTEN
“ZORO” HAIEK

21

erreportajea

“BIDAIA BATEAN,
ARAZOAK SORTZEN
DIRENEAN
HASTEN DA ONENA”

27

baleike.com

HIRU BIDEO

30

bertso xorta

MARKEL PEÑALBA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udal



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



gizarte

kutxa

“Oso herrikoia da danborrada”

Batek agindu behar, eta bera dabil lan horretan azken urteetan. Baina “taldeko lana” nabarmentzeko esaten du behin eta berriz: “Batzordean hartzen ditugu erabakiak”. Taldea baita danborrada. Askoren abilezia bateratzea. Eta hori, zuzendariaren lana da.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MANTEROLA

Zenbat urte zuzendari zarela?


2002an hasi nintzen. Gero, urte batean ez nintzen atera. Hau hamargarren urtea izango dut.

Nolatan hasi zinen danborrada zuzentzen?

Hasierakoek laga zuten, eta norbait behar zen. Ez dakit nola, ni hasi nintzen, eta gaur arte.

Lehen ibilia al zinen lan hauetan?

Danborradan jotzen bai, baina zuzendari bezala, ez. Duela berrogeitaka urte jotzen genuen, umeak ginela, ‘Anelito’ zuzendari zela. Gero, danborrada honetan aritu nintzen, eta orduan ere ‘Anjelito’ zen zuzendari. Gero, hark utzi zuenean, beste pare bat aritu ziren lan horretan, eta azkenean, ni.



Zer behar da danborrada zuzentzeko?

Belarri pixka bat edukitzea. Ez da abesbatza batean bezain garrantzitsua belarriarena, baina eduki egin behar da, erritmo bateratuan jotzeko. Gero, kantak ezagutu egin behar dira. Eta ondo markatu danbor joleei noiz jo behar duten, eta noiz ez.

Zorrotza izan behar da?

Ez. Bakoitzaren izaeraren arabera izaten da. Jotzen ari direnek zuzendaria nola ikusten duten garrantzitsua da, eta zuzendariak besteak nola ikusten dituen ere bai. 1996an hasi zen danborrada hau, eta garaiak aldatu egin dira; orduan, era batera jotzen zen, eta zorrotzasuna behar zen. Baina orain, jendea aldatu egin da, eta helduak gara denok. Jendeari eman behar zaion tratua da norberari jasotzea gustatuko litzaiokena; elkar errespetatu behar dugu. Gure danborradan gustatzen zaio jendeari ondo jotzea; umorez bai, baina ondo jotzea.

Zuzendari lanak ardura gehiago ematen al dizu?

Ardura beti ematen du. Azkenean, ondo atera edo gaizki atera, zuzendariari

begiratzen zaio. Baina jendeak asko lagutzen dit. Danborradakoek, esan nahi dut.

Zubimendi abizena eta musika elkarri lotuta zurekin ere.

Belarri ona eta entzumena besterik ez dauzkat nik. Ez naiz musika ikasitakoa. Azken batean, danborrada baterako ez da ezer handirik behar.

Zer da danborrada ondo jotzea?

Denak batera jotzea. Kolpeak zehatza izan behar du. Erredoble batek baino gehiago betetzen nau denek batera emandako kolpe batek.

Zer esan nahi du zuretzat danborrada hau zuzentzeak?

JOXE MARI ZUBIMENDI

*Jaioterria: Joxe Mari Zubimendi**Jaioteguna: 1953**Ikasketak: administratiboa.**Lanbideak: Kutxabank-en egiten du lan.*

Ardura, alde batetik. Ilusioa ere bai, jendeak erantzun egiten duelako. Esaten diet danborradako kideei beraiek ez dutela inoiz hanka sartzen... beti dela nire errua. Horregatik esaten dut jendeak erantzun egiten didala. Garbi jarri nien zuzendari iraungo dudala beraiek onartzen nauten arte, edo ni segitzeko prest nagoen bitartean.

Momentu politena danborradakoa?

Udaletxearen aurrean jotzen duguneko, eta afarikoa, omenaldia egiten dugun unekoa. Hamazazpi urte hauetan jende ezberdin askori egin diogu omenaldia, eta jendeak barrenetik bizi du. Omenduak hunkitu egiten dira, nahiz eta danborradarekin zerikusirik ez eduki.

Nor da aurtengo omendua?

Nagusilan taldea, adineko pertsoneri laguntzen ibiltzen dena. Herriko elkarte eta talde askoren artean aukeratzen dugu nor izango den omendua; boz gehiena biltzen duena izaten da.

Ondo sendotuta al dago danborrada?

Bai. Azken urte hauetan, arropak aldatu genituenetik, ehun bat lagun ateratzen gara urtero. Hirurogei ateratzen ginen urteak izan zirela kontuan izanda, sendoa dela erakusten du. Gainera, urtero berri batzuk hasten dira. Eta etorkizuna bermatze aldera, gazteak ere gerturatzen zaizkigu; poza ematen digu horrek.

Adin jakin bat eduki behar al da hemen jotzeko?

“Jendeak ilusioa duen bitartean segituko du danborradak”

Ez. Lehen, hogeita hamabosten bueltan jarrita geneukan, baina orain ez, libre da. Hori bai, gizonetzkoak falta zaizkigu. %70 emakumezkoak dira. Bakarrik etortzea zaila da, babesa izatea garrantzitsua da, eta akaso, horregatik ez da animatzen jende gehiago.

Nolatan hasi zen danborrada hau?

1996an, omenaldia egin nahi zitzaion Jose Luis Esnal zenari, haurren danborrada antolatu zuelako. Hura izan zen hasiera.

Gerora nola ikusten duzu ekimen hau?

Jendeak ilusioa duen bitartean, segituko du. Eta ilusioa ez da falta. Kanpotik Zumaiara bizitzera datorrenarentzat ere oso gauza ona da; baditugu horrelako batzuk gurekin jotzen, eta lagundu egiten diete herrian barneratzen. Zumaian jaiotako azkoitiar bat etortzen da, Elgoibarko bat ere bai, pare bat boliviarr ere badaude, eta aurtan, Kubakoren bat ere etortzekoa da. AEBetakoa ere badugu. Oso herrikoia da danborrada. ■



“AKTORE LANETIK EZIN DA BIZI EZ HEMEN, EZTA MADRILEN ERE”

Dagoeneko urte dezente ditugunontzat telesail berezia izan zen *Bi eta bat*. Euskaraz egiten lehen ‘sitcom’-etako izan zen, eta Estatu Batuetatik zetozen komediekin elikatzen ginenok nahikoa barre eta algara egiteko aukera izaten genuen Jose Lontxo gizagaixoaren kontura Jaione eta Idoiak egiten zituzten trikimailuekin. 21 urteren ondoren bueltan da *Bi eta bat*. Maite duen pertsonaia baten azalean sartzeko aukera izango du berriro Elena Iruretak. Ez hori bakarrik: urte askotan Madrilen lanean aritu eta gero, berriz ere etxean lan egitea izango du.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Aktoreena festa eta gau jaiez betetako bizitza dela pentsatu ohi da. Krisiak gizartearen esparru guztiak kolpekatzen dituen garai honetan egia bestelakoa da. “Egoera oso gogorra da. Gero eta pelikula eta telesail gutxiago egiten dira eta ekoizpen etxe batzuk ixten ari dira”. Madrilerako mila eta bat hegaldi hartua, ilusioz beteta hartu du Elenak berriro etxean lan egiteko aukera. Urduritasuna ere agerian du: hasieran sei episodio grabatuko dira, eta ikusleak kopuru batera heltzen ez badira, telesailak ez du jarraipenik izango. Audientzien diktaduraren adibide garbia da.

Artadin dagoen Landarte hotelean jarri dugu hitzordua. Orain 12 urte hartu zuen etxea, txukundu eta gela batzuk jartzeko. Aktoreen lanak gorabehera handiak izaten ditu eta etorkizunean diru-sarrera bat izatea zuen helburua. Lorategitik Santiago hondartzako eta Paroleko ikuspegia suma daiteke. Zuhaitzen artean lasaitasuna da nagusi; azpitik pasatzen den errepideko zaratak ez dira haraino heltzen. Etxea erakutsi ondoren, lorategian eseri gara ondorengoko hizketaldia izateko.

Bueltan da *Bi eta bat*. Kostatu da!

Ba, bai. Lehiaketa batzuez aparte, Euskal Telebistak ez du ezer berririk egiten. Fikziozko serieak garestiak dira eta gaur egun horretarako dirurik ez du.

Nola izan da komedia hau berreskuratzeko aukera?

Orain pare bat urte izan zen. Telmo ilobarekin hizketan esan nion urte asko neramatzala Madrilen lanean eta zer nolako gogoia nuen hemen zerbait egiteko, baina inork ez zidala deitzen. Berak esan zidan *Bi eta bat* zela bere telesail gogokoena eta ea zergatik ez genuen berreskuratzen. Orain zaharragoak ginela eta polita izango zela pertsonaia hauen bizitza kontatzea. Ideia bat bazuen eta gustatu zitzaidan: dirurik ezean, eta artxiboko irudiak erabilita, iraganeko kontuak gogora genitzake. Zinemaldi batean Eneko Olasagasti

► ARTADIKO ISILTASUNA

Artadin duen Landarte hoteleko gela batean.
Santiago hondartza eta Parolbidea ikus daitezke.

zuzendariarekin topo egin nuen eta ideia komentatu nion. Handik urtebetera-edo Carlos Zabala [hau ere telesailako zuzendaria] hurreratu zitzaidan eta esan zidan Orio Produzioak etxea interesatua zegoela. Atzera begiratze hori ez zuten gogoko, baina bai pertsonaia hauekin berriro bat egitea. Euskal Telebistara jo zuten ondoren. Beste bi telesailatarako ideiak zituzten eskutan eta erantzuna Gabonen inguruan ematekotan geratu ziren. Denbora horretan oso urduri egon nintzen. Baiezkoa eman zigutenean negargura eta dena sartu zitzaidan. Ai ama! Berriro hemen lan pixka bat egiteko aukera... Madrilerako joan-etorriekin leher eginda nengoen ordurako.

Berriro Idoiaren gorputzean sartuko zara. Zer egin du denbora honetan?

Aktorea izan nahi zuen pertsona txoraa zen nirea. Idoia Venezuelan ibili izan da foiletoiak egiten, baina gutxi eta eskasak. Handik ere diru eskean ibili izan zaio Jaioneri (Ane Gabaraini). Azkenean lortu du itzultzea eta biak pisu bila aritu dira. Azkenean lortu dute Jose Lontxoren (Jose Ramon Soroizen) etxean sartzea. Alarguna, eraikin oso baten jabea da hau. Eta handik ezta jainkoak ere ez ditu aterako! Eta beti bezala, ahalik eta probetxu gehien ateratzen saiatuko dira.

Jose Ramon eta Anerekin grabatu duzu berriro. Zer moduzkoa izan da esperientzia?

Oso ona. Jose Ramonekin telesail gehiago ere egin ditut. Berekin denbora gehiago pasa dut beste edozeinekin baino. Oso ondo konpontzen gara; izan ere, hainbeste ezagutzen dugu elkar! 56 urte ditut orain eta 23 nituela hasi ginen elkarrekin lanean. Anerekin ere antzera. Antzerki Eskolako lehen promozioetakoak izan ginen bostok: Jose Ramon, Carlos eta ni lehen promozioetakoak izan ginen; Ane eta Eneko bigarren-gokoak. Harrezkero batera ibili gara eta lagunak ere bagara.

Ikuslearentzat agerian zegoen ondo eramaten zinetela, bazegoela zuen artean kimika ona. Mantentzen al da itzulera honetan?

Bai. Oso erraza da elkarrekin lan egitea. Hainbeste ezagutzen dugu elkar, segituan sortzen da giroa. Ondo pasa ere bai. Gaur, adibidez, ezin genuen grabatu. Jose Lontxoren semea-rena egiten duen aktorea gaztea da eta bere lerroak ondo ikasita zeramatzan. Guk ere ikasten ditugu, baina segun zer nola doazen eszenak, gauzak sortzen doaz. Eta une batzuetan ezin genion barreari eutsi. Behin eta berriro grabatu behar izan ditugu eszenak.

Hasiberri batentzat ez zen erraza izango.

Gazte honentzat errazagoa izango dela uste dut. Ikasteaz gain, soltura hartzeko ere balioko dio. Lanean ondo pasatzen bada, gauzak hobeto ateratzen dira, batez ere, komedia izanda.

Zenbat kapituluz osatuko da telesail berria?

Oraindik ez dakigu. Inoiz ez dakizu zenbat izango diren. Beldur horrekin gabilta. Hasieran sei episodio egingo dira eta segituan emitituko dira. Audientziak ez badu erantzuten, akabo!

Telebista asko aldatu da urte hauetan.

Txarrera egin du. Ez dizu hazten uzten. Aktore asko gara, ia denak berriak eta horiek denak aurkeztu beharko dira. Lehen episodioan ez da trama handirik egongo. Eta telesailari ez bazaio hazten uzten, ez badira tramak sortzen, etorkizuna arriskuan egon daiteke. Jende askok, gainera, ez du ezagutuko telesail zaharra. Episodio batzuk ikustea beharrezkoa da pertsonaiak ezagutu eta haria jarraitzeko. Gainera, maiatzaren amaieran hasiko dira emititzen [elkarriketa hilaren hasieran egin zen] eta oso garai txarra da. Eguraldi ona egiten badu, zein geratuko da etxean telebista ikusten? Ikusiko dugu zor-

tea dugun. Mantenduz gero, gehienez 13 kapitulu grabatuko lirateke. Saiatuko gara ahalik eta lan politena egiten.

Nola gogoratzen duzu lehen telesail hura?

Lagunen artean egin genuen lehen telesaila izan zen. Hura bukatu eta *Jaun ta jabe* egin genuen jende berarekin, eta gero *Martin*. Gero hutsune handia izan zen. 10-12 urte izango dira ez dudala hemen lan egin.

Behin eta berriro errepikatu dituzte episodio zaharrak...

Hamalau aldiz bakoitza!

Berriro ikusten al dituzu?

Sekula ez. Ez dut gordetzen ez argazkirik, ez bideoirik. Ez zait neure burua ikustea gustatzen. Behin edo beste tokatu izan zait irudiak monitorean ikustea zuzendari batek proposatuta. Ikusi eta, 'ai, ama!'. Pentsatzen has- ten naiz modu batera ez dudala jarri behar edo honela jarrita gaizki agertzen naizela. Horretarako nahiago dut aurrez ez ikusi. Paso egiten dut. Lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz eta balio badu, ondo. Zuzendariak esaten badizu ondo dagoela, aurrera.

Berriro ere komediara itzuli zara. Komediari lotuta doa zure ibilbidea.

Barre egitea eta barrea eragitea asko gustatzen zait. Ilusio handia egiten dit jendearen barrea eragiteak. Pila bat gustatzen zait.

Zer behar da komedian funtzionatzeko?

Ez dakit zer izan daitekeen. Adibidez, txiste bat kontatzen duzunean, eta ni oso txarra naiz txisteak kontatzen, batek kontatu edo besteak kontatu, ez du grazia berdina izaten. Zuk zeuk ondo pasatzen baduzu komedia egiten, hori transmititu egiten da. Komediarako sena behar dela uste dut.

Generoen artean zailena dela esan izan da.

Ez da erraza barrea eragitea. Lehenbizi, gidoiak ona izan behar du. Txorakeria asko egin ditzakezu, baina gidoiak graziaz ez badu, alferrik da.

Lana natural egin behar duzu. Gero, komedia izanda, torlojuari beste buelta bat eman behar diozu. Baina puztu egiten baduzu, frakaso. Marjina oso estua da, bestela oso zakarra gera daiteke eta, neurritz kanporakoa. Situazioak du garrantzia; situazioak grazia badu, ez duzu ia beste ezer egin behar.

Komedia duzu maite, baina estilo gehiago jorratu behar izan dituzu.

Aktore izanda, denetik egin behar duzu. Eskolan komedia gutxi erakusten ziguten, eta drama asko. Nik uste komedia egitea zailagoa dela. Drama egitea gustatzen zait, baina ez hain beste. Ez dut hain ondo pasatzen. Badaude paper dramatiko oso onak, baina lan txikiak izanda, nahiago komedia egin.

Juanma Bajo Ulloa, Julio Medem edo Iciar Bollainekin beste mota bateko pertsonaiak lantzeko aukera izan duzu.

Beraiek ere ikasten ari ziren. Ezin esan Coppola batzuk zirenik. Bajo Ulloa pertsona jatorra da eta zortea izan zuen bere lehen bi pelikuletan. Gogoan dut anaia eta ama erroda- jean ibiltzen zirela laguntzen. Ama ekoizle aritzen zen lanean etxeko sukaldean tortilla bat egiten zuen bitartean. Bai Iciar, bai Julio ere oso pertsona normalak dira. Lehen pelikuletan zortea izateak ez zaitu bihurtzen zinemagile handi, nahiz eta egunkarietan eta promozioko orrietan hala agertu. Inoiz ez dakizu handik bost urtera zer gerta daitekeen.

Zinemako jendeak telebista gutxietsi izan du. Ez omen zuten inoiz telebistan lanik egingo.

Hori orain ez dizu inork esango. Zinema maila gorenean zegoela uste zuen jendea da, eta orain, zinema gutxi egiten denean, telebistan paperen bat aurkitu nahi izaten dute.

Telesail askotan agertu zara, baina *El comisario* izan daiteke esanguratsuenetako bat.

El comisario 11 urte egin zituen! Komedia moduan enfokatu zen hasieran, eta horregatik komediatik zetorren jendea hartu zuten. Baina oso komedia pasatua zen. Bi kapitulu eta erdi egin ziren Telecincok geratu zuen arte. Buelta bat eman behar zitzaiola esan ziguten, eta derrepentean beste telesail bat atera zen, guztiz poliziakoa. 11 denboraldi grabatu ziren; 11 urte egon nintzen Madrildik joan-etorrian.

Azken urte hauetan zenbait pelikula egin dira euskaraz eta horietako bitan egin duzu lan: *Aupa Etxebeste* eta *Urte berri on, amona!* Euskal zinemaren sorreraren aurrean gaudela uste al duzu?

Nahi bai. Badaude gauzak sortu eta egiteko gogoia, eta jende honi aukerak eman behar zaizkio lan egiteko. Baina dirurik ez dagoenean, ezinezkoa da. Zer egin behar du? Etxebizit-

zarekin abalatu? Oso zaila da proiektuak aurrera eramatea, baina uste dut gauzak aterako direla, nahiz eta dirurik gabe izan. Zumaian bertan ere gauza politak egin dira: Eneko Dorronsorok egindakoa [*Ttaup ttaup, arrain kolpeka*] zer polita zen! Zerbait kontatu nahi duenak lortuko du.

Zinema edo telebistako industriaren egoerari buruz hitz egiterakoan begiratua lainotu egiten zaio. Agerian da nekatuta dagoela. "*El comisario* telesailetik 3.000 aktore inguru pasa ziren. Eta non daude horiek guztiak? Lanean, baina ez zinemaren edo telebistan. Edozein motatako lanak egin behar izaten dituzte. Baita aurpegi ezagunek ere. Hemen nabil ni ere hotelean nire lanak egiten. Ezin zara deituko dizuten zain egon".



“Zuk zeuk ondo pasatzen baduzu komedia egiten, hori transmititu egiten da”




Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



Galdona

denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

► ▼ TELESAILAREN GRABAZIOAN

Miramongo estudioetan grabatu dituzte Bi eta bat berrituaren episodioak. Beheko argazkian, Ane Gabarain eta Jose Ramon Soroizekin.



Argi dago zaila dela aktore lanetatik bizitzea. Zuk Madrilera jo behar izan duzu.

Aktore lanetik ezin da bizi ez hemen, ezta Madrilen ere. Gauzak oso gaizki daude aktoreentzat, eta zer esanik ez teknikarientzat. Telesail batean, pelikula batean, soinu teknikari bat izango da. Mordoa daude eta eskoletatik ehunka ateratzen dira. Non egingo dute lan horiek? Ekoizpen etxeak ere ixten ari dira. *El tiempo entre costuras* egin zuen etxearekin gertatu da: iaz grabatu ziren episodioak, baina telebista kateak ez ditu emititu. Eta ezin dute kanpora atera aurrez hemen botatzen ez direlako. Egoera oso gogorra da.

Aktore batentzat beharrezkoa izango da kanpora joatea lana aurkitzera.

Han ere ez pentsa. Urrutiko intxaurrak hamalau, hara joan eta lau. Jendea larri dabil.

Zuri, baina, oraindik deitzen dizute.

Bai, nonbaiten ikusten naute eta adin honetako norbait behar dutenean nitaz gogoratzen dira eta deitzen didate. Batean lan egiten baduzu errazagoa da beste baterako deitzea. Ezezaguna bazara, berriz, oso zaila da inon hartzea. Lagunekin gertatu izan zait. Ona izanda ere, ezezagunak zirenez zuzendariek ez zituzten hartzen. Telesail batean edo pelikula batean agertu ez badira, ez dituzte kontratatatu nahi izaten.

Aktore ezagun bat izateak, demagun Antonio Resines batek, segurantzia emango dio telebista kateari.

Baina gero ez da horrela izaten. Aurpegi ezaguna izateak ez dakar derrigor produktuak funtzionatuzea. Hala ere, beraien politikak horrekin jarraitzen dute, eta ez dute arriskatzen jende berria kontratatzen.

Goiz bat *Bi eta baten* grabazioan

Bi eta bat berrituaren lehen episodioaren grabazioan egoteko aukera izan du *Baleikek*. Miramongo korridoreetan barrena, telesaillean ikusiko diren dekoratuetara heldu gara. Tabernaren dekoratua dago orain mugimendua. Kamera, foku eta kableez inguratuta gaude. Teknikariak jira eta buelta dabilta grabaziorako dena prest izateko. Eta han dira Jose Lontxo, Jaione eta Potxolo, tabernaria. Azken uneko entsegetan daude murgilduta. Jose Lontxori esaldiak tratatzen zaizkio: “Egia bi eta bi... egia bi eta bi... jodel! Egia bi eta bi lau direla!”. Estrak tabernako barran eta mahaietan esertzen dira: kafea hartu (“ez diegu kafea ematen, Coca Cola baizik”, argitzen digu geroago arduradun batek) eta egunkaria irakurtzearen itxura egitea izango da beraien lana. Carlos Zabala zuzendaria kamera batetik bestera mugitzen da. Planoak behar bezala hartuta dauden ziurtatu nahi du.

Halako batean, Elena agertzen da estudioko ate handitik. Makilatuta, zapi koloretsu bat darama buruan. “Hemen al zarete! Azkenean denok etorri zarete!”. Bi muxu eman eta dekoratua sartzen. Azken aginduak jaso eta eszena grabatzen hasi dira. Idoia lehen aldiz agertzen den eszena da. Urakana balitz zeharkatzen du Idoiak tabernako atea. Jose Lontxo gizagaixoak ez daki zer datorkion; ez du sumatzen Jaione eta Idoia bere etxean sartuko direla, noski, ez joateko.

Idoia: “Jose Lontxo! Ez nauzu honen etxean sartuko!” (dio Jaioneri begira)

Jose Lontxo: “Hau ez duzu nire etxean sartuko, ezta? Kauenlaetxel!”

Lehenengo hartualdia ez da ondo atera, bigarrenagoa ere ez. Behin eta berriro errepikatzen dute eszena, eta hartualdi bakoitzean detaileak aldatzen doaz. Zuzendaria gustura geratzen da laugarren edo bosgarrenarekin, eta atsedena hartzera bidali ditu aktore eta teknikariak. Minutu horietaz baliatzen da Elena Miramongo estudioak erakusteko. Ataria, Jose Lontxoren etxea, bizilagunena... baita *Goenkaleko* kalea ere, foiletoi honen dekoratuak gordetzen dituen estudio handian tarte bat egin diote eta *Bi eta bat*. Benetako kalea dirudi! Ez da detaile bat bera ere falta ez hemen, ezta beste dekoratuetan. Pantailan ageri ez diren tramoak ikuskatzeko aukera dugu. Azken galdera batzuk erantzun eta gero, lanera itzuli da Elena. Agurtu eta bagoaz: ametsen mundua utzi eta errealtate gordinera bueltan.



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES Izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es



LIBRERIA

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569



Alai Berri
supermerkatuak

Astelehenetik igandera 08:00etatik 15:00etara
eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.
Etxera banaketa doan

Alai auzategia, 3 • 943 118 394

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

GOROSTI BODEGA

ELORRIAGA AUZOA, DEBA, GIPUZKOA
Tfno: 670408439 Juan M^e Echave
692605223 Isabel Etxaniz

flysch
txakolina

Galeriako Txakolina
DENOMINACIÓ DENOMINACIÓ



ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



ANA
ETXKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anastaeokozapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA



D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 408

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa. Hego kalea, 4-5
Denda. Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Giroitza
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OLINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943 561 501
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI

Baltasar Etxabe z/o
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net



Basadi
albaitaritzak

Ribaitaria
Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadialbaitaritzak.com
www.basadialbaitaritzak.com

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean itala
Larrietan: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzuak

BASUSTA
ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073



Zumaia Hotela

Jatetxea
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumala tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

Emakumeen kasuan, adin batera helduta zailagoa izaten da paper onak lortzea.

Gizonezkoentzako pertsonaiak badaude, baina emakumezkoentzat oso gutxi. Gehienetan gidoilariak gizonak izaten dira eta gizonentzat idazten dute eta, noski, neska politentzat. Guri sobratzen dena ematen digute. Eskaini didaten azken aurreko papera ‘anciana muy debilitada’ zen. Hurrengoa: ‘moribunda’, ohean etzanda hitz egiten ez zuen emakumea. Hemendik aurrera halakoak etorriko zaizkit. Eta ez dituzu errefusatzeko, lan egiteko aukerak ez dira-eta oso handiak.

Urteekin, nola ikusten duzu zure ibilbidea?

Nik ez dut inoiz ibilbide bat bezala ikusi. Esan daiteke ez dudala inoiz bokaziorik izan. Lehen dentista batekin egiten nuen lan. Zerbait egin nahi nuen eta ‘au pair’ joan nintzen Londresera. Handik bueltan ez nekien nora joan. Antzerki tailerra zabaldu zutenean hara joan nintzen eta onartu ninduten. Garai hartan, goizez Donostiako dentista batekin egiten nuen lan eta arratsaldean eskolara joaten nintzen poz-pozik. Hurrengo urtean beka bat jaso nuen egun osoan ikasteko. Beka txikia zen, baina bizitzeko adina ematen zidan. Luxua zen niretzat bakarrik eskolara joatea! Eskolan muntaia batzuk egiten hasi nintzen. Bata bestearen atzetik etorri ziren, eta hala hasi nintzen mundu honetan. Gero Txirri, Mirri eta Txiribitonekin hasi ginen Aitzpea [Goenaga] eta biok. Urte askotan egon ginen lanean beraiekin Ikusmin ekoizpen etxean. *Hau da hau, Beni eta Marini...* Halako lanak egin genituen. Denbora askoan egon ginen beraiekin, eta beti oso ondo. Nirea lana egitea izan da beti, lana, lana, lana eta lana, eta zorionez hemendik bizitzea lortu dut, baina gorabeherekin. Lanik ez zegoenean *Ama begira zazu* eta antzerako antzezlanak atera ziren. Idatzi ere asko egin genuen, bai besteentzat, bai guretzat. Aktoreen lana oso polita izan daiteke, baina lana, lana da. Kanpotik beste zerbait ematen du, baina gogoan dut garai hartan haserre bukatu genuela elkarren artean. Martutenera joaten ginen kamioia kargatzera. Herri txiki batera joaten ginen, han deskargatu, muntatu, eskuak koipez beteta makilatu, eta eskenatokira atera. Antzezlaneko ordu eta erdi hori zen gutxiena. Amaieran, desmuntatu, kamioia bete eta Martutenera bueltan. Goizeko 4etan edo 5etan bukatzen genuen, leher eginda. Gazteak ginen eta gustura egiten genuen lan, baina oso nekatuta bukatzen genuen. Urte eta erdiren ondoren, ez genuen bata besteak beste ikusi nahi. Lagunak gara, baina... Ilusio handia behar da, eta orain ez daukat.

Antzerkian gutxi ibiltzen zara.

Oso gutxi. Lan asko ematen du eta konpromiso handia exijitzen du. Azkenekoan (*El jefe de todo esto*) ez nuen batere ondo pasa. Bada komedianteen bizitza kontatzen duen Fernando Fernan Gomezen pelikula bat (*El viaje a ninguna parte*). Ba, ordutik ez dira gauzak asko aldatu.

Nabari da etorkizuna beltz ikusten duzula.

Beti ikusi izan dut beltza. Beti izan da zaila lana ateratzeko, baina gaur, batez ere, egoera okerragoa da. Hala ere gauzak egiten dira eta aurrera egin behar da. Osasun txarrarekin, baina ikuskizunak beti egin behar du aurrera.



Landarte ere hemen daukazu...

Bai, 12 urte dagoeneko. 2000. urtean zabaldu genuen. Beti pentsatu izan dut txirripaz bizitzeko ari nintzela. Etorkizunera begira etxe bat hartu eta gela batzuk jartzeko ideia neukan. Hala sortu zen. Beti pentsatu izan dut gaur lana izango dudala, baina bihar ziur ezetz. Mantentzen gara, baina bata bestearekin.

Azken urteotan gehiago ikusten zaitugu Zumaian. Bandak edota Musika Eskolak antolatutako ikuskizun batzuetan parte hartu duzu.

Hemen bizi naizelako ere bai. Hainbeste denbora pasa dut kanpoan! Zumaian inoiz ez didate ezertarako deitu izan. Beste herri batzuetatik deitzen zidaten zerbait egiteko, baina Zumaia inoiz ez. Pentsatzen nuen nirekin ez zirela akordatzeko ezertarako. Bandakoek deitu zidatenean kristoren ilusioa egin zidan. Pozik hartu nuen parte eta grabatzera joan nintzenean barre pila bat egin nuen. Zu ezagutzen zintudan [hau sinatzen duenak parte hartu zuen ikuskizun hartan], baina besteak ez. Nik jende gaztea ez dut ezagutzen, eta pentsatze hutsak gazte hauek edadeko jendearekin zerbait egin nahi dutela, ilusioa egiten du. Harrezkero beste gauza batzuetarako deitu didate. Musika Eskolako Sofiak [Oria] proposatu zidan Inauterietako jaialdian parte hartzeko. Telmo iloba ere irrikan zegoen, eta han joan ginen biok. Garrantzitsua da herrian egiten diren ekitaldietan parte hartzea. Oso jende jatorra dago herrian, eta gauza gehiago egin beharko genituzke elkarrekin. Ez al duzu hala uste? ■



SALTAKA EGITEN ZUTEN “ZORO” HAIEK

TESTUA: GORKA ZABALETA

ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA ETA ELKARRIZKETATUEK UTZITAKOAK

Duela 50 urte Zumaiako gazte koadrila batek ahoa bete hortz utzi zituen gipuzkoarrak. Entrenatzeko apenas zuten baliabiderik, baina bi urtez jarraian Gipuzkoako Atletismo Txapelketa irabazi zuten. Urteurrenaren harira, atleta haietako lau bildu ditugu, garai haiek gogora ekartzeko.

Gu orduan zorotzat hartzen gintuzten herrian”, gogoratzen du Bernabe Apestegik. “Orduan ez zegoen ohitura jendea saltaka ibiltzeko, eta galtza motzetan gutxiago; barre egiten ziguten”, osatu du Luis Mari Aizpuruak. Inaxio Letamendik ere gogoan du erdi ezkutuan ibiltzen zirela entrenatzeko: “Astean bitan iraupena lantzeko saltaka egiten genuen, Hotel Urangaren atzealdetik irten, errio ondotik Estazio gainera igo, Egurkoko atzetik buelta egin eta Zubitxikira, Txomineneko galdategiraino. Buelta hori egiten genuen ibilbide egokia zelako, baina baita ere lotsa ematen zigulako herrian jendearen aurrean ibiltzea, galtza motzekin eta...”.

Gimnasioko entrenamenduak berriz, negu partean, Hotel Urangako garajea egiten zituzten, bertako seme Miguel An-

gel Uranga tartean: “Hoteleko sonbrilen oinarriekin egiten genuen pisu altxaketa... Bizikleta baten erruberarekin arrau-nean egiteko “makina” ere prestatu genuen; uzaibatzen ere jarri genituen... Ahal genuen bezala moldatzen ginen”. Forondan ere egiten zituzten entrenamendu saioak. Aizpuruak gogoratu du berak eskatu ziola baimena Forondako markesari, Madrilera bidalitako eskutitz baten bitartez: “Astebetera erantzun zidan baietz, erabiltzeko bere lursaila entrenatzeko, baina zulorik ez egiteko. Orduan Pako Romatet zegoen hura zaintzen, eta ez zion grazia handirik egin gu han ikustek...”. [Letamendi] “Han entrenamendu teknikoagoak egiten genituen; adibidez, hesiak entrenatzeko, antxoak kaxetako egur meheak erabiltzen genituen, bi kainaberekin lotuta. Soka ez

zen ona, traba eginez gero min hartzeko arriskua zegoelako. Egur meheak jarrita, ukitutuz gero, bota egiten genituen. Baina, klaro, bizpahiru hesi baino ezin genituen jarri, ez zegoen gehiagorako lekurik”. [Uranga] “Juxtu-juxtu pausoen mekanika ikasteko”.

“Ba nik lehiaketa egunetan bakarrik neukan luzera jauzia eta hirukoitza behar bezala egiteko aukera”, dio Apestegik. “Zumaian ez neukan leku egokirik. Itzurungo hondartzan ibiltzen nintzen, hondar lehorrean, orkatilak indartzeko ona zelakoan; eta hiru kiloko pisua sorbaldan hartu, korrika egin eta salto gora... Hala ziren gure entrenamenduak”.

Hasierak

Gazte “zoro” haiek 1960an sortu zuten Club Atlético de Zumaya, baina lehenago hasi zen kontua, 1940ko hamarkadan-edo. [Aizpurua] “Gu hasi baino 15 edo 20 urte lehenago egiten ziren atletismo jaialdiak Amaiaiko plazan, Luistarren eskutik. Urtean behin egiten zen, Luistarren Egunean (ekainak 21): pisu jaurtiketa, luzera jauzia, saltaka... Orduan zorua lurrezkoa zen, ez orain bezala. Simon Elosua *Porte*, Jontxu Uranga, Luis Aristondo *Karne* –gero futboleko atezain–...”, [Uranga] “Josema Albizu, Joseba Yeregi, Sanchez *Burutziki*”. [Aizpurua] “Gu ere Luistarrekin hasi ginen, baina gero Oargui (Obra Atlético Recreativa de Guipúzcoa) etorri zen Zumaia, hura ere Elizarena. Eta haren bidez kirol asko lantzen ziren: mendia, pilota, futbola, batelak, atletismoa. Atletismoan talde polita bildu ginen eta hasi ginen urtean jaialdi bat baino gehiago antolatzen. Herrian sekulako ikusmina pizten zuten jaialdi haiek. Mila lagunetik gora biltzen ziren Amaiaiko plazan”. 1960an, Oarguiren Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuten, “erraz”. [Aizpurua] “Orduan korritu nuen nik azken lasterketa, Tolosako Berazubin, 4x400 erreleboa”. [Uranga] “Zer martxa genuen ikusita, Oarguiren barruan mugatuta geundela ohartu ginen, beste hamaika kontu izaten zirelako han, eta geure kabuz jartzea erabaki genuen”. [Aizpurua] “Hamar urte lehenago Pulpok Luistarrekin egin zuen bezala. Hala sortu zen kluba”.

Cantábrico tabernan jarri zuten egoitza. [Aizpurua] “Joxe Antonio Uria jabea oso ondo portatu zen gurekin. Almazenak eta denak utzi zizkigun”. [Uranga] “Mesede ere egin zion gu han jartzeak... Ordura arte jende gutxi ibiltzen zuen, eta harrez geroztik indarra hartu zuen”.

[Apestegi] “Klubean bi multzo bezala zeuden: alde batetik, federatu ginenak txapelketetan parte hartzeko; bestetik, herriko jaialdietan parte-hartzeko izena ematen zutenak. [Letamendi] “Zumaian kluba sortu baino lehen nabarmendu

zirenak Zarautzera joan ziren: Joseba Yeregi, Pedro Balenciaga, Joseba Sasiain... Gero, Zumaian kluba sortu zenean herrira etorri ziren”.

Klubak ez zuen denbora gehiegi iraun, sortu eta hiru urtera desegin baitzen. [Letamendi] “Klubean funtsezko figura izan zen Miguel Angel Uranga. Bera zen presidente, entrenatzaile, langile... *alma mater* esaten dena”. [Uranga] “Ni izan nintzen txikile...”.

Entrenamenduak prestatzen Uranga bera aritzen zen, liburutatik eta. [Uranga] “Gipuzkoako Federazioak Juanito Gonzalez gasteiztarra ekartzen zuen Donostiara, astean behin, teknika erakustera. Ordura arte, hala moduz entrenatzen genuen, lehen kontatu dugun bezala. Neu Donostian ikasten nengoenez, harengana joaten nintzen. Adibidez, 1.500 metroak entrenatzeko, lehen horixe egiten genuen:

1.500 metro egin, behin edo bitan, eta kitto. Hark erakutsi zigun serieak egiten...”.

Jaialdi jendetsuak

Jendaurrean entrenatzeko lotsez ibiltzen ziren arren, Amaiaiko plazan antolatzen zituzten jaialdiek sekulako arrakasta izaten zuten. [Aizpurua] “Herrikoiez gain, Gipuzkoako atleta onenak ekartzen saiatzen ginen. 1958tik aurrera, indar handia hartu zuten jaialdi hauek. Zumaian ez zegoen hainbeste ikusle biltzen zituen beste ikuskizunik. Kronikak irakurri eta argazkiak

ikusitako besterik ez dago: milatik gora lagun biltzen ziren Amaiaiko plazan”. [Apestegi] “Jaialdi haiek antolatzeko lan handia egiten zen. Lehenik eta behin, Udalari baimena eskatu eta zerga ordaindu behar zitzaion, espazio publikoa erabiltzeagatik...”. [Aizpurua] “Eta denda eta tailerretan ate joka ibili, diru eske”. [Uranga] “Akordatzen naiz nola behin Amaiaiko hotolean zegoen frantziar batek ehun pezeta eman zizkigun. Atletismoan ibilitakoa zen bera eta, ikusita zer gogorekin prestatzen genuen jaialdia, laguntza hura eman zigun”. [Letamendi] “Goizeko zazpitan hasten ginen lanean dena prest edukitzeko. Jauziak eta egiteko, hondarra ekarri behar izaten zen Itzurundik. Ehun metroak korritzeko marrak marraztu, zintak jarri... Lehiatu, eta jaialdia bukatzen zenean dena jaso”.

[Uranga] “Jaialdietan normalean egiten ziren probak: luzera eta altuera jauziak, pisu jaurtiketa, 100 metro –hasieran, arranplatik Itzurun aldera, gero Askunzenetik moila aldera–, eta iraupeneko lasterketa bat, Amaiaiko plazari itzuliak eginez. Erreleboak ere egiten ziren, kalerik gabe”. [Aizpurua] “Pertika jauzia ere antolatu genuen. Illarramendi Gipuzkoako txapeldun oriotarra ekarri genuen”, [Apestegi] “Eta



“Hesiak
entrenatzeko
antxoa kaxetako
egur meheak
erabiltzen
genituen”



► JAIALDIEN ARRAKASTA

Amaiko plazan antolatzen ziren atletismoko jaialdiek sekulako arrakasta izaten zuten. Herrikoetz gain, Gipuzkoako atleta onenak ekartzen saiatzen ziren.

Iturzaeta". [Letamendi] "Aldaitarrak ere bai, korrika egitera. Jende ona ekartzen genuen, eta oso gustura etortzen ziren". [Uranga] "Diru pixka bat lortu genuenean jaialdiaren ondoren Justanean otordua ematen genien eta...".

Gipuzkoako bi txapelketak

1960ra arte Realak, Atletico San Sebastianek eta Tolosak jokatzen zuten Gipuzkoako Txapelketa. Baina, ikusirik Federazioak zenbait herritan klubak sortzen ari zirela, 1961ean bigarren mailako Gipuzkoako Txapelketa antolatu zen. Sei klubek hartu zuten parte: Errenteria, Ilintxa, Donibane, Hernani, Lartaun eta Zumaia. [Aizpurua] "Donostiako Anoetan jokatu zen txapelketa, orduan errautsezkoa zen pista. Nik ez nuen txapelketan parte hartu, ez nintzelako federatu, baina ezagutzen nuen pista. Gogoan daukat behin alpagatekin hartu nuela parte. Bustia zegoen eta ederki itsasten zen errautsa! Bi kiloko algarpatak ziruditen..." [Letamendi] "Bai, garai haietan ez da orain bezala; gu ibilita gaude lau lagun zapatila pare bakarrekin, txandaka".

[Uranga] "Lehen txapelketa hura bi egunetan jokatu zen. Gu trenean joaten ginen, 8:30ean". [Letamendi] "Garaiko kronikak irakurrita, gehien nabarmentzen dutena da gure taldean oso gutxi ginel, eta bakoitzak proba bat baino gehiago egin behar izaten genuen arren, nagusi ginel". [Uranga] "Beste klubetan, bakoitzak bere proba zuen eta kitto. Gu lehen urtean bederatzi lagun bakarrik joan ginen. Batzuk, gainera, oso gazteak ziren: Bernabek (Apestegi) 17 urte zituen, eta Inaxiok (Letamendi) 15".

Hala ere, erraz irabazi zuten 1961eko txapelketa. Eta 1962an, beste horrenbeste. [Uranga] "Bigarren urtean hiru jardunalditan jokatu zen txapelketa, talde gehiago ginelako. Gogoan daukat azken egunean *Narru*-rekin joan ginel, autobusez... Alde handia genuen sailkapenean bigarrenarekiko eta seguru geunden irabaziko genuela. Autobusean joan ginen, gero bueltan herrian harrera egiteko". [Letamendi] "Sekulako harrera egin ziguten, musika eta guzti".

Txapelketa haietan lortutako emaitzek izan zuten oihartzunik Zumaia kanpo, eta klubeko zenbait atleta Gipuzkoako selekzioa ordezkatzeko deitu zituzten. [Apestegi] "Espainia mailan, Gipuzkoa zen orduan hirugarren lurralderik indartsuena, Bartzelona eta Madrilen ondotik. Jubeniletan, 1962an, Zumaia hiru joan ginen Espainiako Txapelketara Gipuzkoako selekzioarekin: Juan Zubia *txomin*, Inaxio Letamendi eta ni neu. Ni nintzen taldeko kapitain, eta Espainiako Txapelketa hura irabazi egin genuen". [Letamendi] "Txokolatea jatea ona zela esan ziguten eta han jardun genuen hirurok, gelan sartuta, txokolate beltza jan eta jan... Almandraduna gainera. Enpatxo hartu ez genuenean...".

Kluba desegin

Gipuzkoako lehen bi txapelketa haiek irabazi arren, klubak ez zuen iraun. 1962ko denboraldia izan zen azkena. [Letamendi] "Miguel Angel Donostiara joan zen lanera, eta Bernabe Madrilera, Blumera, beka bati esker. Bi pieza garrantzitsuenak falta eta, hemen gelditu ginenak sakabanatu egin ginen beste kiroletara". [Apestegi] "Eta instalaziorik ez genuen, eta

1961eko Gipuzkoako Txapelketa

LEHEN JARDUNALDIA (uztailak 30)

100 m. 1. Andres Mari Balenziaga

800 m. 10. Salvador Agirrezabalaga

110mh. 1. Joseba Sasiain, 2. Miguel Angel Uranga

Luzera 1. Bernabe Apestegi, 2. Saturnino Garate

Pisua 2. Juan Carlos Olaizola, 4. Inaxio Letamendi

Jabalina 1. Joseba Sasiain, 3. Miguel Angel Uranga

BIGARREN JARDUNALDIA (abuztuak 6)

200 m. 1. Andres Mari Balenciaga, 2. Saturnino Garate

400 mh. 2. Mariano Berastegi, 4. Inaxio Letamendi

Altuera 2. Joseba Sasiain, 3. Bernabe Apestegi

Hirukoitza 1. Bernabe Apestegi, 4. Andres Mari Balenciaga

Diskoa 3. Miguel Angel Uranga

1.500 m. Zumaiarrik ez hamar lehenen artean

4x100 erreleboa 1. Club Atletico Zumaya

SAILKAPENA: 1. Club Atletico Zumaya (110 puntu),
2. club Atletico Renteria (70 p.), 3. Sociedad Deportiva Ilintxa (56 p.), 4. Donibane (53p.), 5. Club Deportivo Hernani (26 p.), 6. S.C.R. Lartaun (10 p.).

1962eko Gipuzkoako Txapelketa

LEHEN JARDUNALDIA (ekainak 21)

100 m. 1. Bernabe Apestegi, 2. Joseba Sasiain

400 mh. 1. Miguel Angel Uranga, 2. Mariano Berastegi

Altuera 1. Joseba Sasiain, 2. Bernabe Apestegi

Pisua 3. Inaxio Letamendi

4x400 erreleboa 2. Club Atletico Zumaya

BIGARREN JARDUNALDIA (ekainak 24)

200 m. 1. Bernabe Apestegi, 4. Joseba Sasiain

800 m. 3. Miguel Angel Uranga, 4. Inaxio Letamendi

110mh. 1. Lucho Olaizola, 2. Juan Zubia

Luzera 1. Bernabe Apestegi, 2. Felix Manterola

Pertika 2. Joseba Sasiain, 4. Miguel Angel Uranga

Diskoa 4. Felix Manterola, 5. Inaxio Letamendi

HIRUGARREN JARDUNALDIA (ekainak 29)

400 m. 3. Miguel Angel Uranga, 4. Inaxio Letamendi

Hirukoitza 1. Bernabe Apestegi, 4. Felix Manterola

Jabalina 1. Joseba Sasiain, 3. Felix Manterola

Mailua 3. Miguel Angel Uranga, 5. Inaxio Letamendi

4x100 erreleboa 1. Club Atletico Zumaya

SAILKAPENA: 1. Club Atletico Zumaya (157 puntu),
2. Club Atletico Renteria (131p.), 3. Hernani (49p.), 4. Club Deportivo Fortuna (21p.), 5. Donibane (17p.), 6. Gimnastica de Ulia (14p.), 7. Lartaun (11p.), 8. Eibar (3p.).



BEDUA ITURGINTZA S.L.

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

Braky's

Okindegia Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

EKAIN

SAGARDO EKIDOLKIOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

DIGITAL+

SESMA

ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesesma.com
josebasesma14@gmail.com

ERNTO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERROTA

OPIL-OKINDEGIA
SANTXO AUZOA, 32
20750 ZUMAIA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errota@errot-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskeatu aurrekontua
konpromisorik gabe.
DOAN

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAIA

Parafarmazia • Belar-denda

Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Ume eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikakoak, harika eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dieteta, Naturapata, Indologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesatzeak, Esnearen, Artetikaren, Buroi minen, Zirkulazio arazoentzako, kontrakoak), Akupuntura, hornatzeekin eta hornatzak gabe

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA

GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

Era guztietako instalazioak etxebizitzara, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617

Galdona

burdindegia

Mondano marnela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

Garoa

kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

“Txokolatea jatea
ona zela esan
ziguten eta han
jardun genuen
hirurok, gelan
sartuta, txokolate
beltza jan eta jan...
Enpatxoa hartu ez
genuenean...”



hori funtsezkoa da”. [Uranga] “Ba, gutxi falta izan zitzaigun instalazioak lortzeko. Santiagoko hezegunean pentsatu zen egitea. Lehen han futbolearen ere jokatzeko zen, enpresa arteko txapelketa. Planoak ere egin ziren, baina ez zen aurrera atera”. [Aizpurua] “Eta urte batzuk geroago, Egurko atzealdean ere izan zen aukera. Orduan Xabier Irureta zegoen kiroltako zinegotzi, eta hura saiatu zen berriro atletismoa errekurperatzeko. Lursail hura Zumaiakok erabili zuen, baina Aita Marira etorri zenean libre gelditu zen. Euskadiko Kutxarena zen eta erabiltzeko baimena eskatu zitzaion. Baiezkoa eman zuen, baldintza bakarrarekin: enpresaren bat etorritz gero, alde egin beharko genuela”. [Apestegi] “Bai, neuk egin nituen instalazioen planoak”. [Aizpurua] “Azkenean, ziurgabetasun horregatik, ez zen aurrera atera. Gero, hor egon da urte mordoan erabili gabe...”. [Apestegi] “Pena da, guk genuen indarrarekin ez lortzea instalazio batzuk Urola Kostarentzat”.

Maila handiko markak

Duela 50 urte, bistan da, atletismoa praktikatzeko baldintzak ez ziren gaur egungoak. Hala ere, klubak iraun zuen hiru urte haietan aipatzeko moduko markak lortu zituzten Zumaiako atletak. “1961n edo 1962an, jubenil mailan artean, 44,5 segundoko marka egin genuen 4x100 metroko erreleboan. Sekulako marka da, eta zalantzak dauzkate Gipuzkoan inork gauditu ote duen”. Inaxio Letamendi Gipuzkoako Federazioko paperetan begira ibili da, eta beste marka batzuk nabarmendu ditu: adibidez, 1962ko jubenil mailako Gipuzkoako Txapelketan, Juan Zubiak 17,3 segundotan egin zituen 110 metro hesidunak; Bernabe Apestegik, 13,73 metroko jauzi hirukoitza egin zituen 17 urte zituela, eta 18 urterekin 6,84 metro luzera jauzian. “Ralph Bostonek 8,12ko jauziarekin irabazi zituen Erromako Olinpiar Jokoak, eta Espainiako errekor absolutua Isasak zeukan, 7,30ekin. Nik 6,84 egin nuen artean jubenila nintzelarik”, gehitu du Apestegik. Andres Mari Balenciaga getariarrak

11,2ko marka egin zuen 100 metroko lasterketan, eta 23,4koa 200 metrokoan. Ez dira nolanahiko markak...

Bernabe Apestegi, goi mailan

Baina garai hartako koadrilan norbait nabarmendu bazen, hura Bernabe Apestegi izan zen. Jauzietan zen espezialista, luzeran eta hirukoitzean. Jubenil mailako Espainiako Txapelketa irabazi zuen, eta 1961ean urteko hirugarren markarik onenak egin zituen, luzeran zein jauzian. Espainiako Atletismo Federazioko arduradunak ohartu ziren bere mailaz eta Madrileko Blume egoitzara joateko beka eman zioten, goi mailako kirolarien artera. “Hemezortzi urterekin joan nintzen Madrilera. Beka hari esker, kirola egiteaz gain goi mailako ikasketak egiteko aukera izan nuen”.

Baina aldaketa uste baino gogorragoa izan zen. “Hemen egiten genituen entrenamenduen aldean hangoak oso gogorrak ziren. Udazkenean hasi ginen entrenatzen eta martxora arte gimnasioa eta korrika saioak egin genituen. Gimnasioko pisuekin-eta lesioa egin nuen, gehiegizko lan kargagatik. Periorritia egin nuen belaunean, eta handik aurrera, udaberrian, oso gutxi entrenatu ahal izan nuen pistan. Kortisona ere sartu zidaten salto egin ahal izateko, baina ez zidan onik egin. Udan Zumaiara bueltatu nintzen. Ikusi nuen, gainera, atletismoa eta ikasketak batera eramatea oso gogorra zela: entrenamendutik bueltatu eta ikusten nituen liburuak alde batean eta ohea bestean... Oso gogorra zen”.

Lehenengo urte hura amaitu zenean, uztea erabaki zuen. “Etxean planteatu nuen ikasketekin jarraitu nahi nuela eta baiezkoa eman zidaten. Orduan, Burgosera joan nintzen. Hango klub batek fitxatu ninduen, baina nire erritmora ibili nintzen. Han nengoela lortu nuen 100 metroko nire markarik onena: 11,3”. [Letamendi] “Ondorioa da Madrileko entrenamenduak okerragoak zirela hemengoak baino. Goi mailako entrenamendu zentroa Zumaian zegoen, Miguel Angel, hire liburuekin eta...”. ■




GOIKO TABERNA
Erribera, 9 tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinstitute@telefonica.net

Cure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiak
Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API

Ibai gain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, behea
tel. 943 862 651
faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpatratuak...

Itzurun Zuhazbidea, 2 behea
Tel. / Fax: 943 86 15 65

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

ORRAZTEGI ZUMAI



943 862 083

Kaia

Pintxoak eta otartekoak



Txomin Agirre kala, 8

KABI Pakila Eteazarroa, 15
943 117 427

TABERNA




Kaittermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

KANTAU
TABERNA

Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatxoak

Kantauri plaza, 4 behea • Tel. 943 575 840

Alfonso **PEREZ VILLAR**

Bidaia

“BIDAIA BATEAN, ARAZOAK SORTZEN DIRENEAN HASTEN DA ONENA”

Urtarril amaieran furgoneta hartu eta
hegoalderantz abiatu zen Alfonso Perez
Villar. Hiru hilabetea 10.000 kilometro
egin ondoren, bueltan da. Marokon
bizitako esperientzia kontatu digu.

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: ALFONSO PEREZ VILLAR

*Surf saio onenetako baten
ondoren, argazkiren bat
egiteko aukera izan nuen,
Thagazuten.*



Argazki hau Mexikora egindako bidaiakoa da. Sei hilabete egin nituen motoan bidaiatzen. Abentura hutsa.



Nik lehen anaiarekin egiten nuen lan, kamioi gidari. Ia aste osoa etxetik kanpo egiten nuen: igandean irten eta larunbatean itzuli. Lan baldintzak ez ziren txarrak baina, zortzi urte ibili eta gero, ez ninduen betetzen: dirua baino ez zidan ematen. Igandero, kamioiarekin abiatzen nintzeanean, Roge Blascoren *Levando anclas* saioa entzuten nuen irratan. Saioa amaitzen zenean, gauerdian, irrata itzali eta bidaia berezi haiekin ametsetan hasten nintzen. Eta horrela, 2008an, kamioia utzi eta bidaiatzen hastea erabaki nuen. Barruak eskatzen zidan”.

Lehen bidaia Mexikora egin zuen, Oaxacara. “Esperientzia polita izan zen. Handik itzuli nintzenean, surfeko taulak konpontzen hasi nintzen –surflari amorratua da Alfonso–, diru pixka bat ateratzeko. Gero, hasi nintzen surfeko ikastaroak ematen surf elkartearen eskutik. Eta orduan ikusi nuen proiektu polita izan zitekeela bidaia horretara bideratzea, surf mundura, ikasketa prozesu modura”. Indonesiara egindako beste bidaia batetik bueltan, bere surf eskola sortzea erabaki zuen. “Udan lan egin diru pixka bat aurrezteko eta neguan bidaia: hori da gaur egun nahi dudana bizimodua. Euskal Herria asko maite dut, baina negua oso luze egiten zait”.

Afrikara bidaia

Egin berri duen bidaia-idea Mauro senegaldarrak eman zion. “Askok ezagutuko duzue Mauro. Urte asko daramatza Zumaian CDak saltzen. Berak eskaini zidan Senegalen duen

“Mexikotik bueltan surfeko taulak konpontzen hasi nintzen diru pixka bat ateratzeko. Gero hasi nintzen surfeko ikastaroak ematen”

familiarekin bizitzeko aukera. Esperientzia ederra iruditu zitzaidan. Tokian tokiko bizitza bertakoekin egitea da nik bidaietan bilatzen dudana: haien etxean bizi, azokara joan, arrantzara, sukaldean egin... Baina, aldi berean, garbi nuen Senegal bidaia-aren azken helmuga zela. Ez nuen nahi abioi bat hartu eta zuzenean Senegalera joan. Harainoko bidea bizi nahi nuen. Horregatik erabaki nuen furgonetan egitea”.

Maroko, Sahara, Mauritania eta Senegal markatu zituen mapan. Furgoneta oinarrizko gauzekin prestatu –ura eramateko bidai handi bat, sukaldean egiteko lanabesak, patatak, tipulak...–, eta urtaril

amaieran abiatu zen hegoalderantz. Jaenen eta Granadan egun batzuk egin ondoren, Algecirasen itsasontzia hartu eta Marokora iritsi zen. “Rifeko mendilerrotarantz abiatu nintzen. Hango familia bat ezagutzen dut eta haien etxera joan nintzen, egun batzuk pasatzera. Talasemtaneko parke nazionala dago han, leku ikaragarri ederra: basoak, tximino basatiak... Eta turistikarri apenas. Oso bizimodu tradizionala daramate, lasaia. Ogia beraiek egiten dute, olio ere bai, postreak behi esnearekin... Baina hotz handia topatu nuen, eta nik eguzkia nahi nuen”.

Marokoko kostaldetik, hegoalderantz jarraitu zuen, Casablancan eta Rabaten gelditu gabe, Safiraino. “Marokoko arrantza portu garrantzitsuenetakoa da. Eta Safin dago ipar Afrikako eskuineko olaturik onena. Olatu haren bila joan nintzen, baina egoera ez zen onena”. Ia astebete egin zuen Safin, “kalean eta azoketan jendea ezagutzen”.

Argazki hau Kadizen dago egina. Boloniako hondartza ikusten da. Pasadisu natural bat da, aurkikuntza liluragarria.



Argazki honetan ikus daiteke Marokoko paisaiak dituen aldaketak: Urrutira, Toubkal mendilerroa, lau metrotik gorako tontor elurtuekin; eta magalean, basamortua.



Goizeko hamarretan iristen dira arrantzotziak Sidi Ifniko portura, sardinaren arrantzan jardun eta gero. Gehienak arrantzatik bizi dira.



Asmoak aldatu behar

“Orduan, Senegaldik zetozen ingeles batzuekin egin nuen topo. Saharako 1.300 kilometro eta Mauritaniako beste 700 egin ondoren, Senegalera iritsi zirenean atzera egin behar izan zuten. Ezin zen muga pasa. 2.000 kilometro, alferrik. Kotxearen pasaportea eskatzen omen zieten. Afrikako mugetan oso azkar aldatzen dituzte legeak, ez dago ziurtasunik. Han hasi nintzen pentsatzen agian bidaiaren helburua aldatu beharko nuela eta ez nintzela Senegalera iritsiko. Afrikan, bidaiak berak esaten dizu noraino irits zaitezkeen”.

Safitik hegoalderantz jarraitu zuen, hala ere, beti kostaldetik. “Essaouira herrian egin nuen hurrengo geldialdia. Han beste olatu famatu bat dago, baina ni joan nintzenean ezer ere ez. Prebisioetan ikusi nuen hurrengo egunetan ere ez zirela egongo, eta hegoalderantz jarraitu nuen, Imsouane herriraino. Herri txikia da, oso berezia. Japoniak duela 50 bat urte portu bat eraiki zuen bertan, arrantza ustiatzeko, eta arrantzatik bizi dira”. Han bai, han olatu onak aurkitu zituen eta izan zuen surfean egiteko aukera.

Imsouanetik Taghazutera, Marokoko surf lekurik ezagunena. “Agadirko aireportua oso gertu dago eta turista europar asko joaten dira. Olatu oso onak daude, baina negozio gehiegi dago surfaren inguruan. Surfak desitxuratu egiten da horrelako lekuetan”. Autokarabanan joandako Cádizko bi gazte topatu zituen han. “Bi aste egin nituen haiekin, oso ondo, baina erosoegi. Autokarabanan denetarik zuten, eta ez ziren handik mugitzen. Wi-fia ere bazuten! Hausnarketarako balio izan zidan: askotan, dena eramaten dugunean, ez gara bertakoekin erlazionatzen. Oinarrizko gauzei bakarrik bazoaz, beste aukerarik ez duzu, eta jendea ezagutzen duzu”.

Sidi Ifni, benetako bidaiaren hasiera

Bidaian egin dituen hiru hilabeteetatik denbora gehien Sidi Ifnin egin zuen, hilabete eta erdi inguru. “Esango nuke han hasi zela nire



Kainaberarekin arrantzatutako 2,2 kiloko sarbua. Jatetxe batean erreta prestatu zidaten, erdia bazkaltzeko eta beste erdia afaltatzeko, entsaladarekin.

Arrantza kontuak

Surfatz gain, arrantza oso gogoko du Alfonsok, eta bidaiaren guztietan saiatzen da arrantzaleen bizimodua ezagutzen. Marokon ere izan du bertakoekin arrantzara joan eta teknika berriak ikasteko aukera. “Guk hemen, arrantzara joaten garenean, bi, hiru edo lau ordu egiten ditugu. Han ez. Han, bi, hiru edo lau egun pasatzen dituzte. Haitzetatik atera gabe. Sartzen dira kobazuloetan, eta txoko moduko batzuk dituzte prestatuta han lo egiteko. Tea, sua, tallina eta denbora: horrela oso erraza da jendearekin erlazionatzea”.

Olagarrota ere egiten dute paraje haietan, baina teknika ezberdinak erabiltzen dituzte. “Haitzaren arabera, leku batzuetan kakoarekin ibiltzen dira, marketan, Algorri aldean bezala. Baina txalupatik harrapatzeko teknika bat ere badute: amu handi batzuk prestatzen dituzte makiletan lotuta; sardinak jartzen dituzte karnata, eta buia lanak egiten dituen bidoi batetik zintzilikatuta uretara botatzen dituzte. Buia mugitzen hasten denean, bizi-bizi jaso eta han egoten da olagarroa. Beste teknika bat, oso berezia: bi edo hiru kanabera lotzen zituzten, sei edo zazpi metroko luzera lortzeko. Sekulako labarretan sartzen ziren, eta itsasoak gogorren jotzen zuen zuloetan kanabera sartu eta, muturrean duen kakoarekin, sekulako olagarroak ateratzen dituzte”.



Kresala
Taberna
Julio beobide 3, tel. 943 019 869



kuttur
lentzeria
erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatetxea • taberna
oilasko erreka • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.
José Rey Alfaro
Gerente
Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiamotor@telefonica.net

✓ Eguneko menua.
✓ Asteburuetan txotx,
sagardotegiko giroan.



muniosoro
Taberna - Jatetxea
Muniosoro, 54
OIKIA
tel.: 943147891

Nikol Enea



TABERNA
Amaiako plaza



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea
Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna
ogitartekoak
pintxoak
Upela plaza, 7
tel: 943 537 901



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK
Etengabeko garabi zerbitzua
Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com
Itziar indurtegrunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com
638 887 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)

"Muagi"
errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia
RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691



OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.
Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...
Tel. 647 040 156 / 686 911 257



OSA
BERNIZATUAK
Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea
Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



Udan, surf ikastaroak

Bizimodua aurrera ateratzeko surf eskolak ematen ditu Alfonsok uda partean Itzurungo hondartzan. “Bost urtetik gorako edozeini. Jendeak zer eskatu, ni egokitu egiten naiz: izan daitezke taldeak, bikoteak, banaka, asteburua, ordu batzuk...”.

◀ Sidi Ifnin egin nuen lagun handienetako bat: Ibrahim. Kresala zainetan eta marinela bihotza. Pateren inguruko istorio asko ditu kontatzeko.

benetako bidaia. Askotan, bidaiatzean, sentsazioa izaten dut ez dudala nahikoa denbora jendea hobeto ezagutzeko. Eta niri hori gustatzen zait. Paisaiak oso politak dira, baina ni jendearekin bizitzeko esperientziekin gelditzen naiz. Hori topatu nuen Sidi Ifnin”.

Hasieran, hondartzako sorosleak ezagutu zituen, gero azokako saltzaileak, portura hasi zen joaten... Azkenean, familia baten etxean bizitzeko aukera eskaini zioten. “Bidaia aprobetxatu nahi nuen furgoneta pintatzeko, han askoz merkeago baita. Baina pintatzen zuten bitartean lo egiteko lekurik ez nuen, bizpahiru lagunek eskaini zidaten etxea. Haietako bi gazteak ziren, baina nik nahiago nuen familia oso batekin egon, ikusteko nola bizi ziren eta, behingoz, emakumeen bizimodua ezagutzeko. Izan ere, oso zaila da Marokon emakumeekin traturik izatea. Etxean daude gehienetan, eta azokan edo umeak zaintzen daudenean ezin duzu haiekin hitz egin. Horregatik aukeratu nuen hirugarren lagunaren eskaintza”.

“Aita sahararra da eta ama berberea. Sei seme-alaba dituzte: semeetako bat soroslea da, beste bat arrantzalea, eta beste bat Bilbon bizi da. Agian horregatik zabaldu zizkidaten etxe-ko ateak. Eta gero, bi alaba gazte: haiek egiten dute etxe-ko lan guztia”. Lurralde haietan bizi dituzten gatazken lekukotza lehen eskutik jasotzeko aukera izan du Alfonsok. “Han dauzkaten gatazkez nik ez nekien ezer. Saharakoa, Mauritaniakoa, paterak... Han bizi direnek hiru aukera baino ez dituzte bizimodua aurrera ateratzeko: patera batean sartu eta Kanariar Uharteetara iritsi, arrantzale edo militar. Hango jendearekin hitz eginda ohartzen zara zer egoera latza bizi duten. Marokok informazioaren kontrol zorrotza du eta gauza asko ez dira zabaltzen”.

Etxe hartan bertan ere aurkitu zuen egoera gordinik: “Lagarren semea, Mohammed, ezindu fisiko-psikikoa da; ez jaiotzez, txikitan izandako gaixotasun baten ondorioz. Oso gogorra izan zen ikustea nola daukaten etxean gordeta, kate bati lotuta. Antza denez, auzokideei oldartzen zaie, eta lotuta edukitzea erabaki dute. Harrigarria da nolako naturaltasunez daramaten egoera hura. Eta harrigarriena da nik neuk, egun batzuen ondoren, hura naturaltasunez bizitzen amaitu nuela... Gizakia edozein egoerataraz moldatzen da”.

Alfonsok 40 egun egin zituen etxe hartan. “Familia hartako amona ezagutzera ere joan nintzen, mendi aldera. Hura bai zela landa eremua. Han, mendialdean, oso lasaia da bizitza. Askotan, denborak ez du aurrera egiten. Tea edan eta tea edan... Eraman nituen nire iloba Aiorak emandako opari mordoa, hango umei oparitzeko. Sekulakoa izan zen. Asko eskertzen dituzte horrelako detaileak eta Aiora ere oso pozik dago Afrikako haurrek bere jostailuak dauzkatelako”.

Barrualdetik

Hegoalderago jarraitu gabe, barrualdetik jarraitu zuen bidaia, basamorturantz: “Drako bailara, Todra... Antiatlasetik, Atlatetik hegoaldera dagoen mendi katetik. Basamortuarekin muga egiten du eta oasi mordoa dago erreka alboetan. Baratzak dauzkate, terrazetan muntatuta. Nekazaritza gustatuz gero, oso leku interesgarria, ikusteko eta ikasteko”.

Han inguruan dauden bailara ezkutuetan egun bateko txangoak ere egin zituen. “Adibidez, Larrosen Bailaran. Handik ateratzen dute Marokorako lurrinak egiteko lehengaia”. Baina han ere uste baino turista gehiago topatu. “Turismoa dagoen lekuetan jendea aldatu egiten da: prezioak igo egiten dira, mundu guztiak zerbait saldu nahi ditu...”. Basamortuan gau bat pasa eta, pixkanaka, iparrerantz, etxerantz, egitea erabaki zuen.

Lagarren bidaia izan du Marokora, eta beti aurkitu omen du zerbait berria. “Beste Maroko bat ezagutu dut. Aldi bakoitzean zerbait ezberdina topatu dut. Guk hemen marokoar bat ikusten dugunean bizkarra ematen diogu; han beraien gela lagatzen dizute. Bidaiatzen dugunean, askotan, horrelako lekuetara beldurrez joaten gara: zer eskatuko ote dit trukean, noiz aterako ote ditu alfonbrak? Horrela ezin da bidaiatu, ez duzu gozatzen. Ez da hainbeste behar pertsona bati begietara begiratu eta konfiantza izateko”.

Bidaia honetan ez da Senegaleraino iritsi; hurrengoan, agian. “Informazioa lortu dut, harremanak ere bai, eta pentsatzen dut hurrengo bidaiari errazago izango dela. Dena den, bidaia batean arazoak sortzen direnean hasten da onena; dena ondo badoa, ederki, baina momentu onenak sortzen dira arazoei aurre egin behar zaienean: zure ingurunetik kanpo zaude eta laguntza eskatu behar duzu”. ■



Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbi@kirolak.euskalnet.net



OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
Joxe Mari Kortu Induslategia, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide ibiltoia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolazal@euskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltoia Tel. 943861392



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kudilloak)
Saltxitak, oilaskoak...
Garagardak aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905

TXORTENA
JATETXEA

Eguneko menua, Asteburukoa,
Parrilla, Wifi gunea,
Plater konbinatuak,
Kazueltak, Errazioak
Oikiako plaza 24.
Tel. 943 865 315
OIKIA



Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343
Nekazaritza Injineru Teknikoak



PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberría Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

Urola 2000, s.l.
Aroztegia

*Eraikitzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo, tarima eta pertsiak
*Armairu enpatratuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



Xanti Osa
Arantxa Azkue

Amalako plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385



• plater konbinatuak
• ogitartekook
• oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA



Alex Uranga

Txileko txapelketako olatuak jasotzen dituen bideoa.



Broadway plazan

Maiatza Dantzanen barruan musikal hau dantzatu zuten Astinduko kideek.



Bi eta baten itzulera

21 urte eta gero bueltan da telesail hau. Baleike lehen episodioaren grabazioan izan zen. Irudi batzuk zuzenean bota ziren baleike.comen. Geroago, Elena Iruretaren iritziak jasotzeko aukera izan genuen.

Sagardoa Baleikeko bazkideentzat!

Orain hasi eta ekainaren 30era bitartean bazkide eginez gero **Ekain sagardotegiak** emandako 6 botilako kaxa bana jasoko duzu opari. Nahikoa da zure datuak elkartea@baleike.com helbidera bidaltzea edo mezua uztea **943 861 545** telefonoaren erantzungailuan.

Bestetik, iaz bezala, 5 kaxa sagardo ekologiko zozkatu ditugu jada bazkide badirenen artean, eta hauek izan dira irabazleak:

Imanol Zuazobide, Eguzkiñe Senosiain, Igor Albizu, Ane Aizpurua, M^a Luisa Irigoien
Zorionak, eta **eskerrik asko** zuen ekarpenarekin aldizkaria eta baleike.com bezalako gune hau posible egiten duzuenoi!



ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

Herrialde ezberdinetako
produktuen
A z o k a

**Euskal Herriko
Kulturgunea**

Historia *eta* kultura
hitzaldiak ekitaldiak

Ekainaren 16an, denok Iruñera!



Zumalako Udala

2012 ZUMAIA

Amaioko Plaza • Ekainak 22, 23 eta 24

Ekainak 22, ostirala

- 17:00 Marinel-etzakaren irakiera
- 17:30 Erakusketako irakurketa: Eskolako irakurleentzako eta kanpistak
- 18:30 Hitzaldi musikatuak: Eskolako kanpistak berriak berriak
- Andoni Tolosa "Mareu"
- 20:00 Kontzertua
- Petit

Ekainak 23, larunbata

- 11:00 Marinel-etzakaren irakiera
- 12:00 Hitzaldiak: 1512, Mafanoren kanpista
- Angel Rikaldia (Nabarroaldia)
- 13:00 Musika emanaldia
- Erasmus Martikarena
- 17:00 Haur-entzuek: Arraio herriaren memoriak galdia
- Isabel Agirretxe (Hudai aniztasun)
- 18:30 Ikus-entzuek: Gipuzkoaren jatorria
- 20:00 Musika emanaldia: Herri-musikaren salua berrak
- Juan M. Beldarrain

Ekainak 24, igandea

- 11:00 Marinel-etzakaren irakiera
- 12:00 Hitzaldiak: 1200, urteko kanpistaren ondorioak
- Aitzol Altuna (Nabarroaldia)
- 13:00 Musika emanaldia
- Aitzol Altuna
- 16:30 Antzezleak: Gaitortasunak eta Oinartarok
- Marifeli Etxeandia - Jose Komara (Kokabidea Antzerki Taldea)
- 17:00 Bertsoleak: Elkarri eragileko hurrentzako kantu-berrak
- Beti Etxeandia

1512

ERAKUSKETAK

Erakusketak Alondegian

Maiatzaren 25etik ekainaren

10era: Forondako Pintura

Tailerreko lanak.

Ekainaren 12tik 24ra: Pan

D'Oro eskulan elkartearen erakusketa.

Ekainaren 26tik uztailaren

4ra: "Gordetako Arte", Zumaiaiko Nagusiek egindako lanak.

DEIALDIK

Maiatzak 28, ekainak 11

eta 18, 18:30ean Alondegian, EMAKUMEEN OSASUN ZIKLOA.

Ekainaren 8tik 10era, SLOW

ZUMAIA: dastaketak, pintxo lehiaketak....

Ekainaren 11tik 15era

ZUMAIKOK MERKATARITZA

ASTE: puzgarriak, braderie, kontzertuak...

Ekainaren 11tik 17ra

NAGUSIEN ASTEA. Ekainaren 17an 89 urte dituzten zumaiaiei omenaldia.

EKAINA

8, ostirala

18:00-19:30 Kofradian PINTXO

FESTA, Slow Zumaia programan barruan.

19:00etan Aita Marin, Zaragozako

ECOZINE Ingurumeneko Zinemaldiaren 2011. edizioko zinema-emanaldia.

22:30ean Itzurun tabernan, Ori and the Wikipiks jazz taldea.

9, larunbata:

Egunean zehar, Aste Berdearen barne, ate irekiak Algorri Interpretazio Zentroan, sarrera doan.

11:00-13:00 Algorri Interpretazio Zentroan, "Algorriko jolasa"

Zumaiaiko ekosistemen

inguruko tailerra.

11:00-14:00 Beheko Plaza

"Baratza balkoian" erakusketa.

19:30ean Erribera kalean zehar,

ZUMBA dantza kalejira.

Ordu berean Amaia plaza, Melissa

& the Jacks taldearen kontzertua,

Slow Zumaia programan barruan.

10, igandea

Egunean zehar, Aste Berdearen barne, ate irekiak Algorri Interpretazio Zentroan, sarrera doan.

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia "Jolas eta zilarrezko txartela".

12:00-13:30 Algorri Interpretazio Zentroan doako barne bisita eta oinezko irteera geologikoa.

18:00etan Pintxo Lehiaketaren

Sari banaketa, Slow Zumaia programan barruan.

12, astearte

18:00etan Aita Marin, San Telmo lehiaketako Sari banaketa.

13, asteazkena

18:30ean Aita Marin, Musika Eskolaren entzunaldia.



CONN BUX

Ekainak 15

Algorri tabernan, 23:00etan kantautore irlandar honen kontzertua.

14, osteguna

19:30ean Kofradian, Musika Eskolako ikasturte amaierako Rock kontzertua.

15:00-21:00 Victoriano Arraten puzgarriak, Merkataritzaren Astearen barruan.

15, ostirala

19:00etan Ludotekako ikasturte amaierako festa.
19:30ean Komentuan, Musika eskolako kontzertu lirikoa.

16, larunbata

Goiz guztian zehar Braderie, dendak kalera aterako dira.
11:00-14:00 eta 17:00-20:00 umeentzako ekintzak Gernika parkean eta Ondartxo plazan, Merkataritzaren Astearen barruan.

19:30-21:00 Amaia Plaza kontzertua, Merkataritzaren Astearen barruan.

19, astearte

19:00etan Aita Marin, akordeoi kontzertua: Maria Zubimendi, Amaia Zubimendi eta Maria Mogas.

21, osteguna

19:00etan Maria eta Josen, Musika Eskolaren ikasturte amaierako Jaialdia.

22:00etan Aita Marin, zine forum "NANNEROL, LA HERMANA DE MOZART".

22, ostirala

18:00etan Odietan Eskuzko Pelota Txapelketako azken partiduak.

22-24, ostiraletik igandera: Amaia Plaza, Marinel Azoka: azoka, hitzaldiak eta egitarau zabala.

23, larunbata:

19:30ean Kiroldegian, BOXEO GAUA.

22:30ean San Juan iturrian, San Juan dantzak Musika Eskolako dantzarien eta Txistulari Bandaren eskutik.

Jarraian, Eki egunaren jaia.

24, igandea

19:30ean Komentuan, Oroith abesbatzaren kontzertua: "Loreak Lau haizeetara".

Ekainaren 28tik uztailaren 1era

SAN PEDRO JAIK 2012.

ZUMAIA
PRACTICAS AUTO-ESKOLA

- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA:
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behe • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

Zumaia optika

Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxo: 943 143 057

TXALAPARTA
OPARIK

Angelos Sorana, 2
20750 ZUMAIA
#Gipuzkoa
tel. 943 143 089
faxa. 943 430 637

Markel PEÑALBA



Hondakinak

Doinua: "Trumoa ortzi beltzean hoska"

1.

Atez ateko estrategia,
zero zaborren ideologia,
ta bestaldeko alternatiba
kontainer ta erraustegia. (bis)
Geure zaborra arazo bada,
arazoa da geuria.
Sortzea da miseria
ta beraz sortzen jarraitze hutsa
jada ez da zilegia. (bis)

4.

Norberak bere ideiak ditu
ta aldatzerik ez okurritu,
baina aspaldi zabor kontutan
guztiok gera aditu. (bis)
Edozer gauza esaten dugu
nahiz ez ezer entenditu.
Marmarra ezin gelditu.
Ta bitartean zaborra bere
potean ezin kabitu. (bis)

2.

Arazoa da herritarrona.
Herritarrongan izan du sona.
Bide horretan koka liteke
sortu duten plataforma. (bis)
Birziklatzeko konpromisoa
polita eta sakona.
Erantzukizun sintoma?
ala gestio aldaketari
jarritako azken horma. (bis)

5.

Galdeketa bat behar duela.
Demokrazia joko itzela.
Erraustegia egin aurretik
galdetu zuten bezela. (bis)
Nahiz ta dirudin birziklatzea
eskubide hutsa dela.
Gauzak ez dira horrela.
Zabor demokratikoak jango
gaituelako bestela. (bis)

3.

"Birziklatu BAI" lehen goiburua,
efizientzia bada helburua,
dagon sistema onena, ziur,
atez atekoa dugu. (bis)
Bereizketarik onena baita
kalitate ta kopuru.
Kontainerrekin seguru,
ezer bereizten ez zuen orok
berdin-berdin segiko du. (bis)

6.

Eskubidea, betebeharra.
Bien artean da hiritarra.
Nahiz ez gustatu, hau konpontzeko
dugu guztion beharra. (bis)
Ja(da) ezin zaio arazoari
berriro eman bizkarra.
Bildu dezagun indarra!
Ama natura zaintzea izan
dadin interes bakarra. (bis)



749€

BOSCH
KGN39A120
• No Frost
• 200 x 60 cm



INOX

699€

ZURIA

629€

FAGOR
FFK6835X
• No Frost
• 200 x 60 cm



599€

EDESA
URBAN F670
• No Frost
• 200 x 60 cm

Ordaindu 6 hilabetea interesik gabe!

INOX

479€

ZURIA

419€

HOOVER
FFK6835X
• No Frost
• 185x 60 cm



7 urte
garantia

499€

BALAY
3KFE1084
• No Frost
• 185 x 60 cm
• 0°C kajoia.



WHIRLPOOL

WTE2511
• 165 x 55 cm

299€



Ordaindu 6 hilabetea interesik gabe!



299€

EDESA
ZEN F211
• 144 x 45 cm



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com



BALEIKEko irakurleentzat
Ekainean artikulu hauekin
opari berezia!
Robot kantari bat!




Odontologia Orokorra
Ortodontzia
Implanteak
Periodontzia
Protesia



Hobeto sentituko zara!

Kol. zk. 829
Harategiko kalea 1, behea-A
(Ardantzabidetik Sartuta 4. Solairua)
Tel. 943860247
www.iplazaola.net



Zumaia

Gastronomia eta natura iraunkorraren III. jardunaldiak

— ZUMAIA - EKAINAK 7, 8, 9 eta 10 —



Zumalako Udala



zumartian



Babesleak:

Mardu
especialidad en productos selectos

ORTIZ

NARDÍN

ESOTA



GOROSTI BODEGA
flosch

IBARRAKO